

Herritarrek parte hartzeko prozesua Aurkezpena

LABURPENA

[2013/02703]

[19.00-21.00]

[KULTUR ETXEA. OLASO
JAUREGIA]

BERTARATUAK	ANDONI GARAIZAR, AINTZANE LEKUNBERRI, GURUTZE URIARTE, LUIS MIGUEL MACÍAS, AINHOA SANTISTEBAN eta LYDIA LOMAS 49 parte-hartzaile (29 gizon eta 20 emakume)
GAI-ZERREDA	Aurkezpena Iritzi-trukaketa Azterketa/ herritarren partaidetza dinamika

Trapagarango udalak dei egin die herritarrei 2013ko otsailaren 13an, 19:00ean, Olaso Jauregian egin den herritarrek parte hartzeko lehen bilerara.

Parte hartu dute Ainhoa (Kulturako zinegotzia), Luismik (Ogasuneko zinegotzia), Andonik eta Aintzanek, Kultibako bozeramaile gisa, Trapagarango Udaleko Kultura Sailak plan estrategikoa eratzeko kontratatu duen enpresakoek, alegia. Gurutzek eta Lydiak, Kultibako langileak horiek ere, oharrak hartu dituzte publiko eta herritarren artean. Gutxi gorabehera 49 pertsona bertaratu dira.

Ainhoa eta Luismiren artean azaldu dute zein den jarraituko den prozesua Kultura Saileko plan estrategikoa eratzeko eta zein den plan horren helburua. Azalpenen ostean, hitza eman diete Andoniri eta Aintzaneri eta bien artean azaldu dute plana eratzeko jarraituko den prozedura.

Azalpenak amaitu ondoren, herritarrei eman zaie hitza, galderak egin, proposamena planteatu eta kexak agerian jar ditzaten. Beharrezkoa da jakitea herritarren artean zernolako jarrera dagoen proiektu honen aurrean. Esan genezake, oro har, Trapagarango bizitza kulturala nahiko urria dela, jarduera kultural gutxi daukala eta baliabideak, jarduerak bezala, urriak direla.

Beste alde batetik, adinekoei dagokienean, nahiko pozik daude udaletik jasotzen dutenarekin, baina eskazia nabaria da gazteei dagokienean. Gazteei ez omen zaie jaramonik egiten, eta orain arte inork ez ditu kontuan hartu ezertarako.

Hizketaldi baten ostean, herritarrek eskatu dute prozesuak hasiera bat eta amaiera bat eduki ditzala. Nekatuta daude jarraipenik ez duten ekitaldietan parte hartzeaz eta egindako ahaleginak ezertarako balio ez izateaz. Erantzun zaie helburua horixe dela, hain zuzen ere, hori ez gertatzea, eta guztion ahaleginari esker lan on bat egitea.